

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Basauriko Udala****Basauriko Udalak eta SEPES Lurzoruaren Enpresa erakunde Publikoak 2009ko irailaren 15ean sinatutako hitzarmenaren gehigarria, OPCSren (La Basconia) esparruan bizitegi-izaerako hirigintza-jarduera bat garatzeko.**

Basauriko alkateak, 2022ko urtarrilaren 20an 191/2022 Dekretua eman du, Basauriko Udalak eta SEPES Lurzoruaren Enpresa Erakunde Publikoak 2009ko irailaren 15ean sinatutako hitzarmenaren gehigarriaren inguruan. Honako hau xedatzen du:

Lehenengoa: Hasieran onartzea Basauriko Udalak eta SEPES Lurzoruaren Enpresa Erakunde Publikoak 2009ko irailaren 15ean sinatutako hitzarmenaren gehigarria, OPCSren (Basconia) esparruan bizitegi-izaerako hirigintza-jarduketa bat garatzeko.

Bigarrena: Hitzarmen hori jendaurrean jartzea, gutxienez hogeit hamar egunez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-oholean iragarritz, egoki iritzitako alegazioak egin daitezten.

Era berean, Basauriko Udalaren egoitza elektronikoan argitaratuko da (<https://www.basauri.eus>).

BASAURIKO UDALAK ETA SEPES LURZORUA SUSTATZEKO ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAK LEEP-AREN TESTUINGURUAN (LA BASCONIA) BIZITEGI IZAERAKO HIRIGINTZA JARDUKETA BAT GARATZEKO 2009KO IRAILAREN 15EAN SINATUTAKO HITZARMENAREN GEHIGARRIA

.....(e)n, 2022ko(a)(r)en ...(e)an.

BILDURIK:

Batetik, Jesús Lucrecio Fernández Delgado, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioari atxikiriko Lurzorua Sustatzeko Enpresa Erakundearen (aurrerantzean SEPES) ordezkari gisa eta haren izenean (IFZ: Q2801671E; helbidea, Madrilgo Paseo de la Castellana, 91). SEPESeko zuzendari nagusia den aldetik du egintza honetarako ahalmena, kargu horretarako izendatu baitzuten erakundeko Administrazio Kontseiluarren 2020ko irailaren 11ko Erabakiaren bidez. Erabakia publiko egin zen Miriam Herrando Deprit Madrilgo notarioaren aurrean 2020ko urriaren 7an emandako eskrituran (protokolo-zenbakia: 2122), Erakunde horren ordezkari gisa, urriaren 5eko 855/2021 Errege Dekretuak aldatutako SEPESen Estatutua onartzen duen 1525/1999 Errege Dekretuaren 7. eta 18. artikuluek emandako eskuduntzak betez (EAO, 2021eko urriaren 6).

Bestetik, Asier Irigorri Basauren, Basauriko Udal Txit Goreneko Alkatea-Lehendakaria, Udalbatzaren ordezkari gisa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluko 1. paragrafoko b) idatz zatian ezarritako eskumenak baliatuz, Basauriko Udalaren 2021eko(a)(r)en ...(e)ko osoko bilkurak egintza honetarako eskumena eman baitzion.

Bi aldeek adierazi dute lege ahalmen nahikoa dutela Hitzarmenaren gehigarri hau sinatzeko, eta horretarako,

HAU ADIERAZTEN DUTE:

I. Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioari atxikiriko zuzenbide publiko-erakundea da SEPES, eta haren xedeetako bat da administrazio publikoek lurzorua prestatzeko agintzen dizkieten jarduerak bultzatzea. Hala bada, bakoitzaren eskumen esparrua errespetatuz, espainiar lurralde osoan bideratzen ditu jarduera horiek lurzoru urbanizatua eta erabilera eta jarduera jakin batzuetarako sailkatutako lurzorua gizartearen esku jartzeko tresna eraginkor gisa, industriak, zerbitzuak eta etxebizitzak ezartzeko



eta, horrenbestez, esku hartzen duen udalerrri eta eskualdeetan ekonomia eta gizartea garatzeko.

Profil horri esker, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioak (MITMA) zuzenean baliatu du SEPES «Alokairu Merkeko Etxebizitza Plana» deritzon planean aintzat hartutako etxebizitza politikari bultzada emateko, politika horien helburua baita merkatuaren eskura etxebizitza babestuak jartzea alokairupean, merke.

Espainiako Gobernuaren asmoa da «La Basconia» jarduketa, Bizitegi eremua, gora-godo adierazitako «Alokairu Merkeko Etxebizitza Plan» horretan sartzea.

II. 2008an, orduko Etxebizitza Ministerioak, SEPESen bidez, lurzorua erosteko eskaintza publiko bat abiarazi zuen etxebizitza babestuak eraikitzeke bizitegi erabilerrarako lurzorua prestatzeko politika aktiboak sustatzeko xedean. Basauriko Udala, udalerrria behar bezala urbanizatutako eta bizitegi erabilerrarako lurzoruaz hornitzeko interesa izanik, horretarako egokitzat jo zituen HAPOko I.3 Hirigintza Jarduketako Banaketa Eremuan eta Trenbide Komunikazioetako Sistema Orokorrean biltzen diren lurrak, eta beraz, harremanetan jarri zen SEPESekin.

Egin beharreko azterlanak egin ondoren, lankidetzaz Hitzarmen batean jaso ziren bi aldeen konpromisoak hirigintza jarduketa bat burura eramateko eta babes araubideren bati lotutako etxebizitzaren eraikuntza ahalbidetzeko, Lurzorua Erosteko Eskaintza Publikoaren (LEEP) testuinguruan. Hitzarmen hori 2009ko irailaren 15ean sinatu zuten bi aldeek.

Hitzarmen horren arabera, gutxi gorabehera 13 Ha-ko azalera du jarduketa eremuak «La Basconia» izenez ezagutzen diren lurretan, eta 1.000 eta 1.300 etxebizitza bitarte eraiki ahal izango dira bertan, gehienak babes araubideren bati lotuak. Une horretan indarrean zegoen Basauriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrearen Aldaketa Puntualaren arabera, Hiri Lurzoru Finkatu Gabe gisa zegoen sailkatuta eremua, erabilera globalarekin eta industria kalifikazioarekin, eta HAPOko I.3 Hirigintza Jarduketako Banaketa Eremuaren eta Trenbide Komunikazioetako Sistema Orokorrean zati bat hartzen zuen; beraz, ezinbestekoa zen eremua egoki sailkatzea. Hitzarmenak, besteak beste, beharrezko mugaketa berria egiteko eta sailkapen aldaketa sustatzeko Basauriko Udalak hartutako konpromisoa jasotzen zuen, eta SEPES arduratuko zen garapen plangintza, hirigintza kudeaketarako dokumentuak eta jarduketa egikaritzeko beharrezko proiektu teknikoak idazteaz.

Sinatutako hitzarmenaren arabera, eta Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen (ekainaren 30eko 2/2006 Legea) 174.3 artikularekin bat etorrita, desjabetze sistema bidezko egikaritze publikoko araubidearen arabera garatuko litzateke jarduketa, eta SEPES litzateke onuraduna.

Kontuan izanik jarduketaren interes soziala, eta kostuen eragina murrizte aldera, hitzarmenaren arabera Udalak eraikigarritasun haztatuaren %15 (lagatzeagatik dagokion) emango dio eragiketari, gazteentzako alokairu babestuko apartamentuen bizitegi eraikin bat hartzeko lursaila egikaritzeko beharrezkoa dena (gutxi gorabehera 3.000 m² eraikigarri hartzeko modukoa) alde batera utzita.

III. Hitzarmena betetzeko, SEPESek 2010ean guztira 131.152 m² erosi zituen salerosteko eskritura publikoaren bidez, hau da, aurreikusitako azalera osoa.

Era berean, urte hartan, erositako lurretan altxatzen ziren «La Basconia»-ko industria eraikinak Eraisteko Proiektua landu zuen, eta 2012an amaitu ziren eraikin haietako batzuk eraisteko lanak.

Udala, bere aldetik, Basauriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrearen (HAPO) Berrikuspina idazten hasi zen. 2016ko maiatzaren 6an Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuta, Plangintzaren Aurrerakina eta Ingurumen Azterketa Estrategikoa jendaurrera eramateko tramitea abiarazi zen, eta tramite aldi horretan iradokizunen txostena aurkeztu zuen SEPESek. Udalbatzak 2018ko ekainaren 28an egindako osoko bilkuran hasierako onespena eman zion Berrikuspinari (Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 2018ko uztailaren 18koa, 138. zenbakia). Testu berri horretan ez ziren jaso Udalak 2009ko hitzarmenean hartutako konpromiso guztiak eremuari esleitutako erabilerei eta etxebizitza kopuruari



dagokienez, arriskuan jar zitekeen jarduketaren bideragarritasun ekonomikoa, eta ondorioz, alegazioak aurkeztu zituen SEPESek.

Udala eta SEPES harremanetan jarri ziren hasierako onespeneren eta Berrikuspenaren behin-behineko onespeneren arteko hirigintza parametroak doitzeko, jarduketaren bideragarritasun ekonomikoa arriskuan ez jartzeko eta Euskadiko Lurraldea Antolatzeko Batzordeak (ELAB) ezarritakoari erantzuteko.

Berrikuspena behin-behinean onartu zuen Udalbatzak 2020ko martxoaren 26an egindako osoko bilkuran, eta behin betiko eta aho batez 2020ko abenduaren 29an egindako osoko bilkuran (Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 2021eko urtarrilaren 26, 16. zenbakia). Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitara eman eta 15 lanegun igarota jarri zen indarrean.

IV. Onetsitako HAPOn Berrikuspenean bi eremu bereizten dira «La Basconia» hirigintza jarduketari begira aurreikusitako antolamenduaren testuinguru berrian, biak bigarren lauhilekoan garatu beharrekoak: A.O.R. «Basconia Noreste», 74.845 m²-ko lurzoru azalera gordinarekin, hirugarren sektoreko eta industriako erabilera nagusiarekin, eta A.O.R. «Basconia Noreste», 62.455 m²-ko lurzoru azalera gordinarekin, bizitegi erabilera nagusiarekin. Biak ala biak dira Hiri Lurzoru Finkatu Gabea txertatutako jarduketak, aurreikuspenen arabera Plan Berezien bidez garatuko direnak. I. eta II. eranskinetan daude jasota bi eremu horietako hirigintza jarraibideak.

SEPESen jabetzako lurak bi eremu horietan biltzen dira, hura da jabe nagusia (gutxi gorabehera, %79 eta %95en jabe, hurrenez hurren).

V. Berrikusitako plangintzarekin sortutako egoera berriak ez die 2009ko Hitzarmena onartzean egindako aurreikuspenei erantzuten. Ondorioz, bi aldeek beharrezkotzat jotzen dute 2009ko irailaren 15eko hitzarmena moldatzea eta eguneratzea, haren indarraldiari eutsirik plangintzaren egungo zehaztapenak jasotzeko eta tartean diren interes publikoak asetzeko, ondoriozko eragiketen bideragarritasunari kalterik egin gabe, eta aldi berean MITMAren helburua betetzeko, hau da, «Alokairu Merkeko Etxebizitza Planean» aintzat hartutako etxebizitza politikak sustatzeko.

VI. Bestalde, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen arabera behar-beharrezkoa da sinatutako hitzarmen guztiak Legean aurreikusitakoari egokitzea.

Era berean, Lege horretako Laugarren Xedapen Gehigarriak finkatzen du Estatuaren sektore publikoa osatzen duten entitate eta organismo publiko guztiak legearen edukari egokitu beharko zaizkiola Lege hau indarrean jartzen denetik aurrera eta 2024ko urriak 1 baino lehen, eta egokitzen amaitu arte bere araudi espezifikoak aplikatuko dituela.

1525/1999 Errege Dekretuak onartutako SEPESen Estatutua aldatzen duen 885/2021 Errege Dekretuak, entitateari egokitzen dizkio aipatutako 40/2015 Legearen aurreikuspenak. Eta besteak beste, hemen interesatzen denari dagokionez, honela gelditzen da idatzita Estatutuaren 7. artikulua:

- «4. Entitateak sinatutako Hitzarmenek urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikuluan eta hurrengoetan hitzarmenei begira ezarritako aginduak beteko dituzte.
5. Aurreko atalean ezarritakoa gorabehera, SEPESek 2. atalean aurreikusitako hirigintza hitzarmenak sinatzen baditu, hirigintza jarduketak egikaritzeko hitzarmenak sinatzen baditu, erkidego mailan indarrean dagoen hirigintza legediak ezarritako aginduez gain, estatu mailako legediak eta Estatuko lurzoruaren eta etxebizitzaren araubidea ere beteko ditu.

Hirigintza legedia aplikagarriak ezartzen duena izango da Hitzarmen horien indarraldia, betiere urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49.h.1) artikuluan ezarritakoaren arabera.

6. Artikulu honetan ezarritakoa aplikatuko da hirigintzako hitzarmenetan eta bideatzen ari diren hirigintza jarduketak egikaritzeko beharrezkoa den guztietan.»

Horren arabera, Gehigarri hauxe da 2009ko irailaren 15eko hitzarmena 40/2015 Legea moldatzeko dokumentu egokia.



Azaldutakoa aintzat harturik, bi aldeek adostuta gehigarri honen bidez 2009ko irailaren 15eko hitzarmena moldatu eta eguneratu dute. Hona hemen,

XEDAPENAK**Lehena. — Gehigarriaren xedea**

Helburu bikoitza du Gehigarri honek:

1. Udaltzak 2020ko abenduaren 29an egindako osoko bilkuran Basauriko HAPO behin betiko onartu ostean (Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 2021eko urtarrilaren 26) «La Basconia» izeneko lurrek arau izango dituzten oinarriak eta konpromisoak ezartzea, eta 2009ko irailaren 15eko hitzarmena hirigintza zehaztaperen berrietara moldatzea.
2. 2009ko irailaren 15eko hitzarmenaren edukia Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeak ezarritako lege esparrura moldatzea Administrazioek edo Erakunde Publikoek sinatu beharreko hitzarmenei dagokienez, aipatutako legeak exijitutako zehaztaperenak, adierazitako hitzarmenean jasotzen ez direnak, jasoz. Bestalde, hitzarmenak bere indarraldiari eutsiko dio gehigarri honetan ezarritakoaren kontrakoa ez den guztietan.

Bigarrena. — Jarduketa kudeatzeko eta garatzeko modua baldintza berrietan

HAPOn ezarritako antolamendu berriarekin, 2009ko irailaren 15ean Basauriko Udalaren eta SEPESen artean sinatutako hitzarmenak bereizi egingo ditu A.O.R. «Basconia Noreste» (bizitegi erabilera nagusiarekin) eta A.O.R. «Basconia Noroeste» (hirugarren sektoreko eta industriako erabilera nagusiarekin) eremuak.

A.O.R. «Basconia Noreste» eremua desjabetze sistema bidezko egikaritze publikoko araubidearen arabera garatuko da. Horretarako, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 154.4 artikuluan aurreikusitakoarekin bat, eremu horri begira lantzen den Plan Bereziak ezarriko du aipatutako jarduketa sistema.

Eremu horri begira, SEPESek idatziko ditu garapen plangintza, hirigintza kudeatzeko dokumentuak eta legedia aplikagarriaren arabera beharrezkoak diren proiektu teknikoak, eta Udalari aurkeztuko dizkio nahitaezko izapidetze administratiboa bideratu dezan.

A.O.R. «Basconia Noroeste» eremuari dagokionez, kontuan izanik haren ezaugarriak, xede horretan landuko den Plan Berezian eta hirigintza jarduketa programan finkatuko dira araubidea eta egikaritze sistema. Ildo horretan, SEPESek bere gain hartuko ditu, dagokion zatian, garapen plangintzaren, hirigintza kudeatzeko dokumentuen eta beharrezkoak diren proiektu teknikoen erredakzioa eta gainerako gastuak, betiere legedi aplikagarriaren eta onurak eta kargak ekitatez banatzeko printzipioaren arabera, hirigintza aprobetxamendua duen jabetzaren ehunekoa kontuan hartuta.

Basauriko Udalak, lursail horien urbanizazioa udalerriarentzat onuragarria dela jakinda, berriazko konpromisoa hartu du bi eremu horien garapena lehenesteko beharrezkoak diren ekintzak bultzatzeko, HAPOn lehen laurtekoaren programazioan sartuta gera daitezen.

Hirugarrena. — Udalak lagapen bidez dagokion eraikigarritasun haztatuaren %15 eragiketari emateko konpromisoari eustea

Basauriko udalak, bi eremu horiei begira, berriaz eusten dio 2009ko irailaren 15eko hitzarmeneko Laugarren Xedapenean bere gain hartutako konpromisoari, eta Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 27.1 artikuluan arabera lagapenagatik dagokion eraikigarritasun haztatuaren %15 emango dio lurzorua-
ren eragiketa publikoari, kostuen eragina murrizte aldera.

Lurzoruaren ondare publikoaren zati izanik, aipatutako %15eko udal ekarpen hori 2/2006 Legearen 115. artikuluan finkatutako helburuetara bideratu beharko da, zehazki:

- a) Bizitegi aldeari dagokionez (A.O.R. Noreste), alokairu merkeko etxebizitzaren promozioari datzekion interes soziala kontuan izanik, Alokairu Merkerako Etxebizitza Planetik une honetan lantzen ari den programara, edo hura ordezkatzeko



duen programara edo, bestela, babes araubideren bati lotuta dagoen etxebizitza programara bideratu beharko dira lurrak.

- b) Industrialdeari dagokionez (A.O.R. Noroeste), SEPESen jabetzako zatian egingo da %15eko ekarpena —betiere eremu horri begira desjabetzea ezartzen ez bada egikaritzeko sistema gisa—, eta lurrak 2/2006 Legearen 115.1.c) artikuluan aurreikusitako sustapeneko edo interes publikoko jarduera ekonomikoak bideratzeko erabiliko dira.

Halaber, kostuen murrizketari eta lortu nahi den interes sozialari begira, Basauriko Udalak 3.000 m² inguruko edukiera duen lursail eraikigarri bat lagatzeko konpromisotik (hitzarmenaren Laugarren Xedapenean zegoen jasota konpromiso hori) libre uzten du SEPES.

Laugarrena. — Konpromiso espezifikoa A.O.R. «Basconia Noreste» eremuari begira

Compañía Anónima Basconiaren Metalezko Eraikuntza Lantegiko Pabiloiak, SEPE-Sen jabetzakoak, espediente batean daude jasota, Udalak abiaraziriko Kultura Interese-ko Ondasun izendatzeko tramite bidean dagoen espedientean, hain zuzen. Aldi berean, Basauriko Plan Orokorren Berrikuspenak pabiloi horiek erabilera publikoko ekipamendu gisa kalifikatzea aurreikusten du.

Eremuaren ezinbesteko antolamendu xehatuak kalifikatuko du pabiloi horiek hartuko dituen lursaila erabilera eta jabari publikoko ekipamendu gisa. SEPESek Basauriko Udalari dohainik eta aurretiaz lagako dizkio eraikin horiek gehigarri hau sinatzen den egunetik kontatzen hasita gehienez ere sei hilabeteko epean, eskritura edo dokumentu publiko baten bidez, eta betiere Estatuko Ondarearen Zuzendaritza Nagusiak aldeko txostena idatzi badu, Administrazio Publikoen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 147. artikuluan ezarritakoaren arabera. Lege horren 148. artikuluekin bat etorrita, lagapenaren xede diren ondasunak eta eskubideak lagapena justifikatzen duten helburuetarako baizik ezin izango dira erabili, eta 150. artikuluan aurreikusitako hitzarmena suntsitzeko baldintzak aplikatuko dira.

Geroago, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 25. artikuluekin bat etorrita, SEPESek antolamendu xehatutik eratorritako lursaila lagako du, indarrean dagoen antolamendu juridikoan aurreikusitako moduan onartzen den ekitatezko banaketa tresnaren arabera.

HAPOk eremu honetan ezarri asmo dituen 398 etxebizitza horien artean Larrazabal kaleko 7. zenbakiko egungo 8 etxebizitzak sartzen dira, eta horietako 5 udal jabetzakoak dira. Aurri egoeran dago eraikina, eta antolamendutik kanpo geratzen da Plan berriaren arabera. Landuko den Plan Bereziak eraikinaren eraispena ekarriko du, eta SEPESek ordainduko ditu eraispen gastuak eta, hala badagokio, etxebizitza horiek lege okupatzen dituztenei beste bizileku bat emateko gastuak, 2/2006 Legearen Bigarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoaren arabera. Basauriko Udalak elkarlanean jardungo du SEPE-Sekin egin beharreko kudeaketak egiteko, baita beste erakunde batzuekin ere, eremu horretan etxebizitzak husteko eta beste etxebizitza batzuk emateko prozesua ahal den neurrian errazteko.

Bosgarrena. — Bereiz garatzeko aukera

Hirigintzaren ikuspegitik eremu desberdinak direnez, bi aldeek adostu dute bereiz garatu ahal izango direla, eta SEPESek beretzat gordeko du A.O.R. «Basconia Noroeste» eremuko lurrak nahierara erabiltzeko aukera Gehigarri hau sinatu osteko edozein unetan, baldin eta haren garapenak jarduketaren bideragarritasuna arriskuan jartzen badu eta egindako inbertsioaren berreskuratze ekonomikoa galarazten badu.

Horrelakorik gertatuz gero, SEPESek modu frogagarrian jakinaraziko dio Basauriko Udalari inguruabar hori, eta horrek hitzarmena partzialki suntsiaraztea ekarriko du berekin batera, erakunde bakoitzeko organoak izapidetu beharko duena, eta bi aldeak hitzarmenaren arabera hartutako konpromiso guztietatik aske geratuko dira eremu honi dagokionez.

**Seigarrena.—Konpromiso ekonomikoak**

Bi aldeek beren gain hartutako betebeharrak eta konpromiso ekonomikoak dagokienez, gehigarri honek ez du hitzarmenean ezarritakoez gain beste betebeharrak ekonomiko berriak jasotzen, jarduketak garatzetik bertatik eratorritako betebeharrak baizik ez.

SEPESen ekarpen ekonomikoak, sinatutako hitzarmenaren arabera hari baitagokio jarduketak finantzatzea eta egikaritzea, jarduketak osatzeko guztiz beharrezkoak direnak izango dira, betiere aplikagarri den hirigintza araudiarekin bat etorrira.

Ekarpen horiek gehienez ere 32.494.457,00 € osatu artekoak izango dira egindako kalkuluen arabera, eta behar bezala jasoko dira SEPESen aurrekontuetan, aurrekontu legedian aurreikusitakoarekin bat eta jarduketaren garapen mailaren arabera. Dagoeneko 15.436.559,00 euroko inbertsioak egin ditu SEPESek, eta 17.357.898,00 euroko zenbatekoa geratzen da inbertitzeko. Zenbateko hori dagozkion eraikuntza proiektuak egikaritzetik eratorritako doikuntzei egongo da lotuta.

Inbertitzeko dagoen zenbatespen ekonomiko hori kalkulaturako hurrengo urteetan dago jasota:

	Euro
2022. urtea	130.000,00
2023. urtea	100.000,00
2024. urtea	1.500.000,00
2025. urtea	7.407.979,00
Gainerakoa	8.219.919,00

Eremu bakoitzari begira, modu honetan banatzen da kalkulua:

— Basconia Noreste eremua —bizitegia—:

	Euro
2022. urtea	58.000,00
2023. urtea	100.000,00
2024. urtea	1.500.000,00
2025. urtea	7.407.979,00
Gainerakoa	0

— Basconia Noroeste eremua —hirugarren sektorea eta industria—:

	Euro
2022. urtea	72.000,00
2023. urtea	0
2024. urtea	0
2025. urtea	0
Gainerakoa	8.219.919,00

Hirigintza jarduketak zehaztu behar direnez, inbertsioak gauzatzeko alde aurretik beharrezko baimenak eta lizentziak lortu behar dira, beharrezkoak diren dokumentu teknikoak eta hirigintzako dokumentuak onartu behar dira, SEPESen aurrekontu baliabideak erabili behar dira, eta, erabili beharreko baliabide publikoak kontuan harturik, jarduketaren bideragarritasun teknikoari eta ekonomikoari eutsi behar zaio.



Ekitaldi bakoitzean arestian adierazitako ezinbesteko baldintza horiek betetzen ez badira aurreikusitako inbertsioak gauzatzeko, dagozkion zenbatekoak hurrengo urteetara bideratu ahal izango dira baldintzak betetzen diren unean aipatutako inbertsioak gauzatzeko.

Hitzarmen honek ez dio betebeharririk ez konpromiso ekonomikorik eskatzen Basauriko Udalari.

Zazpigarrena. — Hitzarmenaren iraunaldia eta indarraldia

Urriaren 1eko 1525/99 Errege Dekretuak onartutako SEPES Lurzorua Sustatzeko Erakunde Publikoaren (SEPES) Estatutua aldatzen duen urriaren 5eko 855/2021 Errege Dekretuaren 7. artikulua araberara, hirigintza legedia aplikagarriak finkatuko du hitzarmenaren iraunaldia.

Zortzigarrena. — Betebeharrak iraungitzea eta hitzarmena suntsitzeko arrazoiak

Hitzarmena iraungi egingo da hartan aurreikusitako jarduketak bete badira edo Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 51.2. artikuluan ezarritako arrazoiren bat baldin bada.

Hitzarmena berariaz suntsituko da zati batean SEPESek atzera egiten badu Bosgarren Xedapenean adierazitako inguruabarra gertatzen denean. Kasu horretan, hitzarmenak suntsiaraztearen ondorioak aplikatuko dira 40/2015 Legearen 52. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Ez betetzeren bat gertatuz gero, bi aldeetako edozeinek errekerimendu bat egin ahal izango dio betebeharrak bete ez duen aldeari, eta beste epe bat emango dio bete gabekotzat jotako betebeharrak edo konpromisoak bete ditzan. Errekerimendu hori hitzarmena betetzeko jarraipen, zaintza eta kontrol lanak egiteko mekanismoaren arduradunari eta gainerako alde sinatzaileei jakinaraziko zaie.

Errekerimenduan adierazitako epea igarota ez betetzeak bere horretan jarraitzen badu, epea abiarazi duen aldeak beste aldeari jakinaraziko dio hitzarmena suntsitzeko arrazoa gertatu dela, eta suntsitutzat ulertuko da hitzarmena. Ez betetzeagatik suntsiarazpenak berekin ekarriko du betebeharrak egunean dituen aldeari eragindako kalte zuzenen kalte-ordaina eskatzeko aukera.

Hitzarmena suntsitzeko arrazoa hitzarmenaren iraunaldia amaitu izana baldin bada, aldeek, hitzarmenaren jarraipen batzordeak proposatuta, erabaki ahal izango dute abian diren jarduketak egiten jarraitzea eta amaitzea, lanak bukatzeko epe luzaezin bat ezarrita, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 52. artikuluko hirugarren atalean ezarritakoaren arabera.

Bederatzigarrena. — Jarraipen batzordea

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean ezarritakoa betez, jarraipenerako Batzorde bat osatuko da hitzarmena egikaritzen dela zaintzeko eta kontrolatzeko.

Erakunde bakoitzeko bi kidek osatuko dute Batzorde hori: Basauriko Udalaren aldetik, Alkateak edo hark eskuordetutako zinegotziak eta izendatutako teknikariak, eta SEPESen aldetik, SEPESeko Zuzendari Nagusiak edo hark eskuordetutako pertsonak eta izendatutako teknikariak.

Bi erakundeek izendatzen duten pertsonak beteko du Lehendakaritza kargua. Ildo horretan, bi urtean behin txandakatuko da kargu hori. Hauxe izango da hasierako hurrenkera:

- Lehenengo bi urteetan: Basauriko Udalak izendatutako pertsona.
- Bigarren bi urteetan: SEPESek izendatutako pertsona.

Batzordeko Idazkaritza kargua ere Lehendakaritzaren txandaren arabera txandakatuko da.

Eratu, deialdiak egin, saioak egin, erabakiak hartu eta aktak egin ahal izango ditu Batzordeak aurrez aurre zein telematikoki, baldin eta bitarteko elektronikoen bidez ziurta-



tzen bada kideen edo ordezkatzan dituzten pertsonen identitatea, adierazpenen edukia, adierazpen horiek egiten diren unea, batzordekideen arteko elkarreragina eta komunikazioa denbora errealean, eta saioan zehar bitartekoak erabilgarri daudela.

Lehendakariak prestatuko ditu deialdiak, eta kide anitzeko organoko kideei helaraziko dizkie bitarteko elektronikoen bidez, bilkurak egin baino bi lanegun lehenago gutxienez. Deialdian honako hauek jakinaraziko ditu: eguneko gai zerrenda, ahal denean erabakiak hartzeko beharrezkoa den dokumentuekin batean, zer baldintzatan egingo den saioa, konektatzeko sistema eta, hala badagokio, bilkuran izateko eta parte hartzeko beharrezkoak diren baliabide teknikoak eskainiko diren tokiak.

Eguneko gai zerrendan jasota ez dagoen gai bakar bat ere ez da eztabaidatuko edo erabakiko, kide anitzeko organoko kide guztiak bilduta gai hori aho batez premiazkoztat jotzen ez badute.

Aho batez hartuko dira erabakiak. Bilkurara urrunetik bertaraten den kasuetan, erabakiak lehendakaria dagoen tokian hartzen direla ulertuko da.

Idazkariak idatziko du kide anitzeko organoak egiten duen bilera bakoitzari dagokion akta, eta honako hauek zehaztuko ditu ezinbestez: bilkurako gai zerrenda, bilkura egin den lekua eta eguna eta bilkurak iraun duen denbora, eztabaidatutako puntu nagusiak eta hartutako erabakien edukia.

Grabatu ahal izango dira kide anitzeko organoak egiten dituen saioak. Grabazioetik sortutako fitxategia, fitxategi horren benetakotasuna eta osotasuna ziurtatzen dituen Idazkariaren ziurtagiria eta saioko dokumentu gisa erabilitako euskarri elektronikoko dokumentu guztiak aurkeztu ahal izango dira saioei dagozkien aktekin batera, eztabaidatutako puntu nagusiak bertan jaso behar izan gabe.

Hamargarrena. — Hitzarmena aldatzea

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49.g) artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira, sinatzaileen aho batezko erabakia beharko da lortutako akordioaren edukia aldatzeko.

Hamaikagarrena. — Hitzarmenaren eraginkortasuna

Aldeek adostasuna emanez burutzen da hitzarmena.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 48.8 artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira, behin Lankidetzako Organo eta Tresnen Estatuko Erregistro Elektronikoa (REOICO) inskribatutakoan jarriko da indarrean hitzarmena. Gainera, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Hori guztia aplikatu beharreko legediaren arabera beharrezkoak izan daitezkeen izapideak egiteari eta erregistroetan inskribatzeari kalterik egin gabe.

Hamabigarrena. — Izaera juridikoa

Izaera juridiko administratiboa dute gehigarri honek eta osatzen duen Hitzarmenak, eta beraz, hirigintza araudi aplikagarriaz gain, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legeak gai horri buruz ezarritakoa dute arau. Administrazioarekiko auzien jurisdikzioko Epaitegiek eta Auzitegiek ebatziko dituzte hitzarmenaren interpretazioaren eta egikaritzearen inguruan sortzen diren auziak.

Eta horrela jasota gera dadin, eta xedapen guztiekin ados daudela eta guztiak onartzen dituztela erakusteko, aldeek agiri hau sinatzen dute, parte hartzaileen kopuruarekin bat datorren kopia kopuruan, hasieran adierazitako tokian eta egunean.

Basaurin, 2022.eko urtarrilaren 21ean. — Alkatea, Asier Irigorri Basaguren